

Bilduma bigarren gaia : Donazarreko San Mixel eskolako antolaketaren adibidea

Taldeek ekarpena (2018eko erakasleen gogoetak)

Gogoetak « Neurri bereko eskola » taldeka

▪ Zer abantail/akats ikusten dut holako antolaketa batean ?

Abantailak :

Lotura bat sortzen da **ikasleen artean** (tutoregotza bat ? elkar laguntza), **erakasle taldean**, nahasketak harremana indartzen du (bai ikasle eta bai irakasle artean). **Koesioa** sortzen du, motibazio berri bat ere bai, irakasleek eta ikasleek plazer ainitz hartzen dute

Ikasleek **ardura** gehiago hartzen dute holako proiektuekin

Eskolako haur guziek ezagutzen dute elgar. Ikasle bakoitza tailer guzietan pasatzen da.

Proiektu aberats bat sortzeko, **manera desberdin batean** lan egiteko aukera emaiten du. Gauza desberdinak egiten dira **momentu mugatu hortan** (oren bat), hortan dedikatua.

Eskolaren eskemaren haustea ona da.

Haurren erritmoa errespetatzen da ; Talde ttipietan lan egitea biziki on da.

On da loturak egitea gaien artean (sukaldaritza eta informatika adibidez)

Ikasleak **laneko prest** dira tailer horien **ondotik**.

Euskara indartzeko aukera da frantsesaren eguna delarik adibidez.

Hizkuntzaren tokia eskolan haurren artean ongi argitzen da. Ez da bakarrik eskolako gaien hizkuntza.

Akatsak :

Zer baldintzetan egingarri da ?

- egun osoa hizkuntza batean egiten delarik ?
- erakasleak denbora osoz ari baitira ? nola egin denbora erdiz direlarik ?
- Ainitz lan galdetzen du, uztailan. Honek suposatzen du lan taldea ez dela aldatzen, ekainan badakitela nor izanen den eskolan. Erakasle berriekin, nola egin ?

Hizkuntzaren lekua argi dea ? Euskara/frantsesa parekotasunaren oreka mantendua dea ikasle elebidun bakoitzarentzat ? Elebakarrak taldean direlarik zer hizkuntza erabili ? Euskarazko erakaslea frantsesez aritzea ttikien aintzinean ?

Prestaketak **zonbat denbora** hartzen du ? Eta **zonbat gela** libro behar dira ?

Helburu zehatzak finkatu behar dira. Gai guziak manera horretan (ikasleak nahasiz) lantzen ahal direa ?

Ikasle ainitz direlarik, taldeak haundiak direlarik, nola antolatu ?

- **Ene ikastetxean, holako antolaketa batek zer ondorio luke ? erakasle/laguntzaile euskaldun, ziklo edo maila, zoin gai... Zer da egingarri epe labur edota luze batean ?**

Antolaketa arazo bat baldin bada, lehen urrats batean **gela elebidunen artean** posible izan daiteke holako antolaketa bat.

Urte osoan zaila delarik :

- **epe batean** egin daiteke, adibidez hilabete batez, edo garai batez ?
- edo **ekitaldi baten** inguruan, puntualki ?
- zertako ez **arratsalde oso** bat **aste guzietz** garaika ? 2 astetarik behin egiten dute Itsasuko eskolan adibidez urtearen bigarren partean, urteko gaia landuz, ama eskolako haundietarik CM2 arte

Erakasle/laguntzaile elebidun ainitz direlarik, erretxago da hunen antolatzea.

Gure eskolako azpimarratu nahi dugu holako elkarlan batean, proiektu bat lantzean, bakoitzaren gaitasunaren arabera, **erakaslearen gaitasunak baloratzen direla Zentzua** emaiten du erakaskuntzari, eta hizkuntzaren gaia bultzatzen du.

Ama eskolan antolaketa egingarri agertzen da